

Aditzeko askargille batzuei buruz

Batasun billa gabiltza eta, billaketa hortan, geure burua behin eta berriz bidekurutzean aurkitzen dugu. Aukera egin behar eta, sarri asko, bide bata nahiz bestea zilegitasunez elkarren heineko.

Horrelakoetan, zenbait aldiz, atzera jo eta hizkerak bere aldakuntza-bidean, bizi izateak dakarkion aldakuntza-bidean, nundik norakoa darabilen ikastea onuragarri dateke, joera hori hausteke aukera nola egin erakuts bait-diezakegu.

Oraingo hontan, aditza hobetoxeago ezagutzeko lagungarri izan ditek-elakotan, erabilli ohi diran askargille batzuek jardutera nator.

Gramatikalari gehienek, NORK-dun laguntzalleaz jardutean,

nau / gaitu
naza / gaitza

flesioak alderatu, eta horietan ageri omen dan IT askargilleaz dihardute. Gauzak ongi aztertuz gero ez dut, ordea, IT litzakelako askargille hortaz mintza ditek-enik uste; izan ere.

nau / gaitu

flesioen arteko bereizkuntza IT gaineratu izatean datzanarren, ez bide ditek-e

naza / gaitza'n

artekoagatik horrelakorik esan. Hemen, IT dalako horren gaineratzea itxura hutsezko dugu, idazten TZ hotsa horrela (T eta Z elkarren ondoan jarrita alegia) emateak dakarrena¹; idatziz emateko beste era bat hartu izan bagenu, adibidez \$,

naza / gai\$

ikusiko genituzken, eta ez litzake IT-eko bereizkuntzarik azalduko.

1 Askotan T eta Z elkarren ondoan gertatzeari badario ere, TZ hotsa, berez, berezko eta berezia da ATZO, ETZI, HOTZA, UTZI. e. a.

JOSU OREGI ARANBURU

Bestalde, NAU eta flesioak EDUN dalako aditz bati dagozkiola argi dago; hor, lekuko, Irigoienek aurrean jarri deraukun EDUTEN. Dagokien aditz-guna -DU- litzake beraz, eta

nau < *nadu

laburpen baten ondorio genituzke, EUKI aditzeko

nauka < naduka

bezelaxe. Beraz, hasieran egin ditugun alderatzeak honela behar lukete:

*nadu / gaitu
naza / gaitza,

eta hoietan zera ikusiko genuke: Askargillea IT ez, bainan I dala, I horren eragiñez ondorengo hotsak gogortu, eta

d > t
z > tz

aldatzen dirala. Gertatu bide diranak osoago idatziz gero,

*nadu / *gaIdu
*gaiDu > gaiTu
naza / *gaIza
*gaiZa > gaiTZa

I dalako horren nondik-norakoa aztertuz gero, hona zertzu aurkitzen ditugun:

a)- Gipuzkeraz HAIEK aditz-jabearen ezaugarri dugun (T)E bestetan honela agertzen zaigu:

Bizkaieraz dakarrE
Oñatin dakarrAI
Sakanan daukAI

b)- Deklinazioan ere,

gizonari / gizonaIri, gizonE(r)i

ematen dituzte, «gizonaIri» dalakoa Oñatin, Zeanurin, Usurbillen eta Goiherrian darabiltela.

ADITZEKO ASKARGILLE BATZUEI BURUZ

Bizirik gabekoen deklinazioan ere,

mendiko / mendiETAko

biren artean ETA-zko bereizkuntza bat dago, bestetan ere (AranzETA, PagoETA, e. a.) ugaritasuna edo askartasuna adierazten duan zerbaitezkoa beraz.

Doñuz hobekien ezagutzen dudan euskeran, Bergarakoan alegia,

gizonákin / gízonekin
gizonái / gízonei
gizonán / gízonen

darabilzkigu, beste

mendíko / ménditako
mendíra / ménditara

ta horrelakoetan bezelaxe azentua tokiz aldatzen dugula. Ez da beraz A/E-zko aldakuntza soil bat gertatzen, azkeneko horietan bezela hitza sílaba batez luzatzeari bait-dario doñu-aldatze hori, eta orain darabilzkigun

gízonekin, gízonei, gízonen, e. a.
gizonaEkin, gizonaEi, gizonaEn

zaharrago batzuen laburpen diranaren usteak erabat bidezko dirudi.

- d)- Izenordeetan ere aurki genitzake, ongi bagiraturaz gero, esan ditugunen indargarri dirateken batzu; adibidez, hirugarren mailako HA-ri dagokion askarra Otxoa-Arinek AEK ematen du, eta tokian-tokian egiten diran

(h)a / (h)æk, hek, a(y)ek, arek

bereizkuntzetan ere E baten aztarrena somatzen da, harrezkero E horren askargilegoaz ahantzi eta K gaineratu bazaio ere. Bergaran,

arén liburua / éren liburua

esaten ditugu, A/E-zko aldakuntzaz gainera lehen aipatu dugun azentu-aldatzea egiten dugula.

Mítxelenak bere FONETICA HISTORICA VASCA-n (118. garren orrialdean) diona bera gertatu da beraz emen; itxura danez:

lenAEn — lenAIn — lenEn

JOSU OREGI ARANBURU

bezelaxe,

dakarrAE — dakarrAI — dakarrE,

gero, gainteko bereirizkuntza-zurrean,

dakarrE > dakarDE, dakarTE

giputz-itxurakoak sortzen dirala.

Beraz, zehatz-mehatz jarriz gero,

*na(d)u / *gaEdu > *galdu
gaiDu > gaiTu

naza / *gaEza > *galza
*gaiZa > gaiTza

Harrezkero, IT eta TZ horiek beste askarpide batzuen sorburu gertatu dira; adibidez,

nau / gaiTu bezela,

ninDu / ginTu;

du / dITu bezela,

dio / dITio;

deZa / diTza bezela,

dieZon / dieTZon.

Areago: Altuben iritziz azkeneko hau ziteken, agian, aditzean

tza, tze, tzi,

eta horietatik

z, zka, zki

askargilleak sartzeko bideetatik bat.

E-zko askargille zahar hori, NORK gabeko aditz- laguntzailean aurkitzen ditugun

*gaEra > $\left\{ \begin{array}{l} *(gaIra) > gIra \\ gEra \\ gAra \end{array} \right.$

ulertzeko ere bide litzaiguke.

Bergaran, 1971 - IX - 25

JOSU OREGI ARANBURU